BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

548

AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 10ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Elgoibarko (Gipuzkoa) Makina Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioari, Pariseko L´École D´Ingénieurs du CESI delakoaren Enpresa Ingeniaritza Txandaka titulua lortzeko ikasketak emateko jarduera bertan behera uzteko baimena emateko dena.

Irailaren 21eko 330/1999 Dekretuak, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako estatuko tituluekin homologatu ezineko unibertsitate-mailako ikasketak ematen dituzten ikastegien eraketa eta jarduna baimentzeko prozedurak eta baldintzak arautzen dituenak, ikastegi horiei baimena emateko prozedura eta ikastegi horiek bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2003ko martxoaren 19ko Aginduaren bidez, Elgoibarko (Gipuzkoa) Makina Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioari, Pariseko L´École D´Ingénieurs du CESI delakoaren Enpresa Ingeniaritza Txandaka titulua lortzeko ikasketak emateko ikastegia sortu eta martxan jartzeko baimena eman zitzaion.

2012ko abenduaren 14an, ikastegiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari jakinarazi dio 2012-2013 ikasturtetik aurrera goian aipatutako titulua lortzeko ikasketak emateko jarduera bertan behera uzteko asmoa. Dena den, ikastegiak oraingoz ikasketa horiek ematen jarraituko du dagoeneko ikasketok egiten ari diren ikasleei beren ikasketak amaitzeko aukera bermatzeko.

Ondorioz, borondatez jarduera bertan behera uzteko baimena hezkuntza-alorrean eskumena duen sailak eman beharko duela xedatzen duen irailaren 21eko 330/1999 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Elgoibarko (Gipuzkoa) Makina Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioari, Pariseko L´École D´Ingénieurs du CESI delakoaren Enpresa Ingeniaritza Txandaka titulua lortzeko ikasketak emateko jarduera bertan behera uzteko baimena ematea, 2012-2013ko ikasturtetik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena.– Agindu honek erasandako ikasleei agindua jakinarazteko eskatzea ikastegiko legezko ordezkariari, eta ikasle horiek beren ikasketak amaitzeko behar duten gutxieneko denboraz ikastegiak ikasketak ematen jarraituko duela bermatzea.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dezakete Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Laugarrena.– Ebazpen hau ikastegiko legezko ordezkariari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 10a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.